



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Bilboko Erruki Etxeak bere sorreraren 250. urteurrena ospatuko du Arriaga Antzokian, kontzertu oso berezi batekin

- Lau ahots bakarlari, Bilboko Koral Elkartea eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) elkarrekin arituko dira asteartean, irailaren 24an, Diego Martín-Etxebarriaren musika-zuzendaritzapean.
- Bilboko erakunde enblematikoetako baten omenezko kontzerturako aukeratutako errepertorioak Francisco Escudero, Juan Crisóstomo de Arriaga eta Wolfgang Amadeus Mozarten piezak hartzen ditu barne.

Bilbo, 2024ko irailaren 19a.- Bilboko Errege Erruki Etxe Santua hiriko erakunde zaharretako bat da eta, aurten, 250 urte beteko ditu. 1774an sortu izanaren urteurrena ospatzeko, kontzertu oso berezia antolatu du Arriaga Antzokian. Hitzordu musikal hain interesgarria datorren astean izango da, hain zuzen, irailaren 24an, asteartean, 19:30ean, eta **Diego Martín-Etxebarria** maisuaren musika-zuzendaritza izango du, zeinak **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** zuzenduko baitu bere batutaz. Ahots-emanaldia lau ahots bakarlari bikainek eskainiko dute, **Naroa Intxausti, Marifé Nogales, Josu Cabrero eta Julen García**, hain zuzen ere, **Enrique Azurzak** zuzendutako **Bilboko Koral Elkartea** lagun dutela. Kontzertu honetarako aukeratutako errepertorioak Escudero, Arriaga eta Mozarten piezak hartzen ditu barne.

Bilboko Erruki Etxe Santuaren 250 urteko zerbitzua eta konpromisoa ospatzeko oroitzapenezko kontzertuko lehen lana *Izar ederra* izango da, Francisco Escudero euskal musikari ospetsuak konposaturiko a capella koru-lana. Musikaria oso lotuta zegoen erakundeko musika-bizitzarekin (musika irakasle izan zen bertan), eta konposizio hunkigarri hori mendeetan Erruki Etxearen ezaugarri izan diren eskuzabaltasunaren eta elkartasunaren ikurra da. Ondoren, Juan Crisóstomo Arriaga bilbotar konpositore miresgarriak sortutako *Sinfonia ren* interpretatuko da. Egileak erakundea ezagutu zuen, ziur asko, bera jaio baino hogeita hamabi urte lehenago sortu baitzen. Haren musikak Bilbo kultura-gune zirrargarri gisa definitu duen espirtu berritzaile eta artistikoa ekartzen du gogora.

Azkenik, kontzertuaren goren unea Wolfgang Amadeus Mozartek 1779ko Pazkorako idatzitako *Koroatze Meza* handientsuarekin iritsiko da. Haren solemnitateak Erruki Etxe Santuaren lan humanitarioaren ezaugarri diren handitasuna eta transzendentzia espirituala islatzen ditu. Erruki Etxeak Bilboko eta lurraldeko historiaren gorabehera guztiak bizi izan ditu, eta hura sortu zuen eta estamentu publikoekin batera laguntzen jarraitu duen gizarte zibilaren adierazgarri argi bat da.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

250. urteurrenaren kontzertua - Casa de Misericordia

Zuzendaritza: **Diego Martín-Etxebarria**

Sopranoa: **Naroa Intxausti**

Mezzosopranoa: **Marifé Nogales**

Tenorra: **Josu Cabrero**

Baxua: **Julen García**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)**

Abesbatza: **Bilboko Koral Elkarte**

Koruko zuzendaria: **Enrique Azurza**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus